

MALKOAK

Sentimenduen putzuan,
pentsaeretan murgilduz,
oroitzapenen artean,
igeri eginez,
iragana,
birgoraziz,
denboran atzera
egingo bagenu bezala,
hainbat irri eta negar,
ahantzi ezinak.
Isuritako
malko bakoitza

galdu da denboran,

isuri dira eta,
sentimenduen putzuan,
pentsaeretan murgilduz,
eta
oroimenen artean,

galduz.
Malkoen itsasoan,
hainbat sentimendu
nabarmendu ditzakegu,
istorio bat baitago,
malko bakoitzaren atzean.
Malkoen itsasoa baita
benetako sentimenduen putzua,
Malkoen itsasoa baita:
Oroimenen Biltegia.

Egunak joaten ikusten
ditugu,
inoiz itzuliko,
ez diren egunak;
egun ilunak,
egun alaiak;
bizipen guztiek dute eta,
helmuga berbera:
Oroimenen Biltegia,
han gordetzen direlako,
gure sekretu ezkutuenak.

Bizipenak
oroitzapen bilakatzen
dira,
biltegian pilatzen,
joaten direnekin,
batera egotera,
sententziatua.

Malkoak,
begietatik isurtzen
ditugun
tanta sinpleak dira,
sentimendu bat errudun
dutena,
sentimendu hori da eta
malkoaren isurketaren
arrazoia.

Tristura, euforia,
edo poza eta beldurra,
edozein sentimendu izan
daiteke, erruduna.

Adierazpen ugari,
sentimendu eta bizipenetatik,
bereizi eta sortutakoak,
egunak igaro dira, akabo;
ez baitira itzuliko,
baina bai gogoratuko,
gure putzu amaigabean,
gure biltegian,
oroitzapenak izango baitira,
azken finean,
bizirik jarraituko duten bakarrak,
hor egongo direlako, beti;
gogoratzeko zain.

Zebe